

OKARIZ

— ARABA / ÁLAVA —

Okariz Iturrieta mendietatik eta Entzia mendilerrrotik proiektatutako uhindura leun batek eratzen duen muinoan dago, Zaraeta errekaaren (Zadorra-en adarra) ezkerraldean. Munain-Okarizko basoa gutxienez bost mendeko antzinatasuna duten seihun eta zortzi zuhaitzek osatzen dute –batzuek ziurrenik zortziehun urte baino gehiago dituzte– eta duela gutxi aditurek bioanitzasunaren altxorra dela adierazi dute.

Donemiliaga udalerriari dagokio, Aguraingo kuadrillaren barruan. Gasteizetik 26 km ingurura eta Agurainetik 4 km eskasera dago.

Okariz Bordeletik Astorgara zihuan antzinako erromatar galtzadatik hurbil dago, eta horren erakusgarri dira San Miguel ermita izandako eraikinaren hormetan txertatuta dauden erromatar hilarrak. Ermita hori herrialdearen ipar-mendebaldeko gainalde txikian zegoen, etxadiak kontrolatuz, eta Arabako Ekieldeko Lautadaren ikuspegia zoragarria zuen. 1984. urtean eraikina eraitsi egin zuten, azken urteetan artzainak bizilekutzat erabiltzen zuen eta. Ermitaren hondakin erromatarrak Probiñtziako Museo Arkeologikora eraman zituzten.

Herri horren lehenengo aipamen dokumentala Donemiliagako Reja izeneko agirian dago, 1025. urtearen inguruan. Bertan Ocariz, *Opaucu* eta *Padura* ageri dira, hiruren artean Errioxako monasterioari urtean golde-burdina bat ordaindiz, Alfoz de Hegiraz izenekoaren barruan. Datu horrek erakusten du biztanle gutxi zituela, hiru herrixken artean hamar etxe ziren eta. *Padura* hustu egin zen gerora eta Jerónimo Aznar gotzainaren zerrendan ez da ageri, 1257. urtean. Bainan Opakua eta Okariz bai. XI. mendean leku hori batez ere abizen toponimikoeitan ageri da, Ocáriz eta Okariz, 1062. eta 1071. urteetan egindako bi dohaintzatan. XIII. mendean, zaldunen edo landa-jaunen aldetik jasotzen zuten tratuarekin pozik ez zeudenez, Arriagako kofradíaren lurretan zeuden-eta, Okarizko herritarrek eta Munain herrikoek Antso IV.a Gaztelako erregearekin Agurainen herritartzeko ahalmena eskatu zioten, azken horrek errege-izaera zuen eta. Baimen hori 1289ko urtarrilaren 3ko pribilegioaren bidez eman zieten, baina badirudi herritartzea ez zela 1322. urtera arte gauzatu, Okarizen kasuan behintzat. Gil

Okariz se asienta en un promontorio de los formados por una de las suaves ondulaciones que se proyectan desde los montes de Iturrieta y la Sierra de Entzia, a la orilla izquierda del arroyo de Zaraeta, afluente del río Zadorra. El centenario bosque de Munain-Okariz, formado por seiscientos ocho árboles de al menos cinco siglos de antigüedad –algunos probablemente de más de ochocientos años– ha sido recientemente calificado por los expertos como una joya de la biodiversidad.

Perteneciente al municipio de San Millán / Donemiliaga y a la cuadrilla de Salvatierra / Agurain, Okariz dista unos 26 km de Vitoria-Gasteiz y escasos 4 de Salvatierra-Agurain.

De la proximidad de Okariz con el trazado de la antigua calzada romana de Burdeos a Astorga, hablan las lápidas romanas insertas en los muros del edificio que fue ermita de San Miguel. Esta ermita se situaba en la pequeña cota existente al noroeste de la localidad, dominando el caserío y gozando de notables vistas de la Llanada Oriental Alavesa. En el año 1984 el edificio fue desmantelado. En los últimos tiempos había sido utilizado como vivienda del pastor, siendo trasladados sus restos romanos al Museo Arqueológico Provincial.

La primera mención documental de este pueblo tiene lugar en el documento de la Reja de San Millán, hacia 1025, donde figura Ocariz junto con *Opaucu* y *Padura*, compartiendo el pago de una reja anual al monasterio riojano, dentro del Alfoz de Hegiraz. Este dato revela su escaso vecindario, puesto que entre las tres aldeas sumaban diez casas. *Padura* fue posteriormente despoblado, y ya no figura en la concordia del obispo Jerónimo Aznar, fechada en el año 1257, documento en el que sí aparecen Opakua y Okariz. En el transcurso del siglo XI, la existencia de este lugar es recordada documentalmente por los apellidos topónimos, Ocáriz y Okariz, con ocasión de dos donaciones acontecidas en los años 1062 y 1071. Ya en el siglo XIII, descontentos con el trato que recibían de los caballeros o señores rurales, al situarse dentro del territorio definido por la Cofradía de Arriaga, los vecinos de Okariz, junto con los de la cercana población de Munain, solicitaron al rey Sancho IV

lizentziatuak 1556an esan zuen parrokian lau apai-
zek zerbitzatzen zutela, hiruk lanaldi osoan eta ba-
tek lanaldi erdian. Okarizen eskumenean zenbait
ermita egon dira: San Joan, San Pedro eta goian
aipatu dugun San Migel. Gaur egun desagertuta
daude guztiak.

de Castilla la potestad de avecindarse en la villa de Salvatierra, de condición realenga. Este permiso les fue concedido por privilegio fechado el 3 de enero de 1289, aunque parece que el avecinamiento no se cumplió, por lo menos en el caso de Okariz, hasta el año 1322. El licenciado Gil dice, en 1556, que servían a la parroquia cuatro clérigos, tres de ración entera y uno de media. Han sido varias las ermitas que han estado ubicadas dentro de la jurisdicción de Okariz: la dedicada a San Juan, la de San Pedro, y la ya mencionada de San Miguel. En la actualidad no queda en pie ninguna de ellas.

Jasokundeko Andre Maria eliza Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción

TENPLUA ETXADIAREN erdian altxatzen da, norabide guztietara irekita dago eta bideen zabalgune irregular baten buru da. Elizaren gaur egungo egitura harlanduzkoa da, XVI. mendekoa. Hala ere, jatorrizko

EL TEMPLO se erige en el centro del caserío, abierto a todas las direcciones y presidiendo un irregular ensanche de caminos. La fábrica actual de la iglesia, de buena sillería en todo el edificio, es obra del siglo XVI. Sin



Ikuspegia orokorra

Vista general

eraikin erromanikoaren aztarna ugari kontserbatzen dira, batez ere portadan eta elizpearen zati batean.

Tenpluan sartzeko jatorrizko portada, XIII. mendekoa, hegoaldeko hegalean dago, eta 1973an egindako zaharberriitzean aurkitu zuten. Portada hori gaur egun itsututa dago, baina arku zorrotza eta bi arkibolta ditu. Lehenengoa baketoiduna da, eta bigarrena akanto-hosto estilizatuekin dago apainduta, modu erradialean kokatuak, muturra au-rerantz iraulita dutela. Arkua hainbat osagaiz modu ederrean apaindutako bi janben gainean iraulita dago: eskuinekoan hamaiaka lore zirkular daude, erdiko botoiarekin, eta inguruan elkarri lotutako zurtoin uhinduak dituzte, besan-


embargo son numerosos los restos que se conservan del edificio románico original, principalmente representado por la portada y parte del pórtico.

La primitiva portada de acceso al templo, obra del siglo XIII, se sitúa en el costado sur y fue descubierta en la restauración realizada en 1973. Se trata de una portada, actualmente cegada, de arco apuntado con dos arquivoltas. La primera es baquetonada, mientras que la segunda se ornamenta con estilizadas hojas de acanto, dispuestas en sentido radial y con la punta vuelta hacia el frente. Voltea el arco sobre dos jambas bellamente decoradas con diferentes elementos: la de la derecha muestra once flores cir-





Hegoaldeko portadako ezkerreko zutabea / Columna izquierda de la portada sur



Hegoaldeko portadako eskuineko zutabea / Columna derecha de la portada sur

teen sortaren barruan sartuta. Janba osatzen duten lau harlanduetatik hiruk ezkerraldeko sorta galdu dute, eta laugarenak, goiko aldean dagoenak, bi aldeak kontserbatzeaz gain, beheko aldean besanteak ditu. Badirudi horrek esan nahi duela jatorrian janbaren beheko aldea errematatzen zuela. Horrez gain, aipatutako harlanduaren albokoak inskripzio baten aztarna zehaztugabeak ditu. Baliteke aurreko hilarri berrerabili bat izatea.

Ezkerreko janbak eskema bera du, eta goiko harlandua eskuineko aldean deskribatutako berdina da. Gainerako hiruretan, lore zirkularrak hostoz bihurtzen dira eta foliolos irekitako dituzte. Janba horien bi aldeetan kapitel begetalak eta erretikula-motiboz apaindutako fustek dituzten bi zutabe daude. Ezkerrekoaren fustean saski-motiboaren bilbea irekiagoa da, eta kapitelean palma itxurako apaingarrrien bi segida gainjarrita daude. Akanto-hosto estilizatuek apaintzen dute eskuineko kapitela.

culares, con botón central, rodeadas por ondulantes tallos enlazados entre sí, y enmarcadas en sarta de besantes. Tres de los cuatro sillares que componen la jamba han perdido la sarta del lado izquierdo, mientras que el cuarto, situado en la parte superior, conserva, además de ambos lados, besantes en la parte inferior, lo que parece indicar que se encontraba originalmente rematando la parte de abajo de la jamba. Además, el sillar contiguo al mencionado presenta restos imprecisos de una inscripción, por lo que puede tratarse de una lápida anterior reutilizada.

La jamba de la izquierda sigue el mismo esquema, siendo el sillar superior idéntico a los descritos en el lado derecho. En los tres restantes, las flores circulares se convierten en hojas con los foliolos abiertos. A ambos lados de estas jambas se asientan dos columnas con capiteles vegetales y fustes decorados con motivos de retícula. La de la izquierda presenta en su fuste la trama del encestando más



Elizpeko sarbide zaharreko xehetasuna / Detalle del antiguo acceso al pórtico



Zimazio erromanikoa

Cimacio románico

Portada hau eta Estibalizkoa estu-estutik lotuta daude, arkiboltako hosto motari, kapiteletako akanto estilizatuei eta fuste erretikulatuei erreparatuz gero. Hala ere, motibo horiek ohikoak dira Arabako beste eliza batzuetan. Janben apaindura dela bide du Okarizko elizak Estibalizko monasterioaren antz handia.

Portada horren aurrean elizpea ireki zen, trantsizioko errománikoan kokatzen dena. Lurperatze-tokia izan zen 1616. urtera arte. 1563. eta 1564. urteetan elizan sartzeko ate berri bat irekitzea ordaindu zen. Horren arrazoia elizan elizpe-hilerra zeharkatu gabe sartu ahal izatea zen, aldi horretan hedatutako izurriaren beldurrez. Bi urte geroago, epidemia igaro ondoren, tenplurako sarrera elizpean zehar ireki zen berriro. Elizpea bi ganga-tarterekin estali zen, eta horretatik gaur egun desagertuta dagoen estalkia zurkaizteko bi pilare kontserbatzen dira. Portadaren ezkerdean kokatutakoak inposta errománikoaren zati bat kontserbatzen du eta horretan parpain-arku bat oinarritzen zen, gaur egun desagertuta dagoen arren; arku hori aurrean jarritako zurkaitz-pilarean iraultzen zen. Elizpe horretara kanpoko portada batetik sartzen zen, eta hori neurri batean kontserbatzen da. Hiru arkiboltak osatutako arku zorrrotza du: lehenengo biak baketoidunak dira; hirugarrena akanto-hostoz apaintzen da, goiko aldea aurrealderantz iraulita dutela. Arkua hiru zutabe paretan zurkaizten zen, eta horien zati batek soilik dirau Zutabeek fuste lisoak, atzaparren harroinak eta askotariko apaindura zuten kapitelak zituzten: lau hosto haragitsuak, lirio-loreak eta hostoak zurtoin luze eta uhinduekin, besteak beste. Kapitelen

abierta y dos series de palmetas superpuestas en el capitel. Estilizadas hojas de acanto decoran el capitel derecho.

Esta portada guarda estrecha relación con la de Estíbaliz, en el tipo de hoja de la arquivolta, en los estilizados acantos de los capiteles y en los reticulados fustes. No obstante estos motivos son comunes en otras iglesias alavesas. Es la ornamentación de las jambas lo que convierte, a la iglesia de Okariz, en la única que comparte con Estíbaliz este tipo de decoración.

Ante esta portada se abrió un pórtico, inscrito en el románico de transición, que fue lugar de enterramiento hasta el año 1616. En 1563 y 1564 se pagaba la apertura de una nueva puerta de entrada a la iglesia. El motivo era poder acceder a ella sin atravesar el pórtico-cementerio, por el temor a la peste desatada en esa época. Dos años más tarde, una vez pasada la epidemia, fue abierto de nuevo el paso al templo a través del pórtico. Se cubría éste con dos tramos de bóveda, del que se conservan aún dos pilares de apeo de la cubierta, hoy desaparecida. El situado a la izquierda de la descrita portada, conserva parte de su románica imposta y en ella apoyaba un arco fajón, desaparecido, que volteaba en el pilar de apeo situado enfrente. Se accedía a este pórtico por otra portada exterior, conservada en parte. Presenta arco apuntado formado por tres arquivoltas: las dos primeras son baquetonadas; la tercera se decora con hojas de acanto con la parte superior vuelta hacia el frente. Se apeaba el arco en tres pares de columnas, mantenidas sólo en parte, de fustes lisos, basas de garras y capiteles de ornamentación diversa: carnosos

erremate modura imposta lerro bat dago, eta, tarte batzuetan, apaindura begetala kontserbatzen du. Zutabe arteetan apaindura askotariko eta geometrikoa duten baketoia daude, oso estilizatuak, kapitelen antzera. Horietako bat-ean, ezkerraldekoan, erliebe oso laua duen maskaroi txiki bat dago.

Eliza erromanikoaren beste aztarna batzuk hegoaldeko hastalean daude: leihate oso estua, zenbait harlandu eta apaindurariak gabeko modiloien aztarnak.

Tenpluaren barrualdean, gaur egun San Joseren irudia hartzen duen idulkia aztarna erromaniko interesgarria da. Palma itxurako apaingarriak eta hosto haragitsuak ditu. 1973ko aipatutako zaharberritzean tenpluaren oinetan kokatutako hobietatik ateratako Erdi Aroko eta XVI. mendeko irudien multzo interesgarria ere kontserbatzen da. Irudi horiek XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran lurperatu zituzten, gurtzatik kendu ondoren, une hartako ohiturari jarraituz. Besteak beste, San Migelen taila on bat dago, XIII. mendekoa, ziurrenik izen bereko ermitatik ateratakoa, eta "Andra Mari" eder bat, gotikoa, XIV. mendekoa. Ziurrenik, Erdi Aroko tenpluaren buru izan zen, titularra zen aldetik.

Testua eta argazkiak: MPG

cuadrifolios, flores de lis y hojas con largos y ondulantes tallos, entre otros motivos. Rematando los capiteles corre una línea de imposta que conserva, en algunos tramos, su decoración vegetal. En los intercolumnios se disponen baquetones con variada y geométrica decoración, muy estilizada, a modo de capiteles. En uno de ellos, situado en el lado izquierdo, aparece un pequeño mascarón de relieve muy plano.

Otros vestigios procedentes de la iglesia románica se encuentran en el hastial sur: un ventanal muy estrecho, varios sillares y restos de modillones sin decoración.

En el interior del templo la peana en la que se asienta hoy la imagen de San José es otro interesante resto románico, decorado con palmetas y hojas carnosas. Se conserva también un interesante conjunto de imágenes medievales y del siglo XVI, extraídas de varias sepulturas, situadas a los pies del templo en la mencionada restauración de 1973. Estas imágenes habían sido enterradas a finales del siglo XVIII y en los comienzos del XIX, tras ser retiradas del culto, siguiendo la costumbre del momento. Entre ellas se encuentra una buena talla de San Miguel, del siglo XIII, procedente, probablemente, de la ermita de su nombre, y una bellísima "Andra Mari", gótica del siglo XIV que, como titular, presidió probablemente el templo medieval.

Texto y fotos: MPG

Bibliografía / Bibliografía

GARCÍA ORTEGA, M. R., 1982, pp. 651-652; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, pp. 93-94; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 46-47; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J., 1997a, I, pp. 223-292; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 67-68, fig. 138; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 62-63; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 58; PLAZAOLA ARTOLA, J., 2002b, p. 157; PORTILLA VITORIA, M. J. et alii, 1982, pp. 615-616, 619, fig. 540-541, 544; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 67-68; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, p. 70.